

**ANEXO I**  
**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**  
**EGITEKO TXANTILOIA**  
**ANEXO I**  
**PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA**  
**ANUAL DE ÁREA O MATERIA**

**Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	P.ANDRES DE URDANETA IKASTETXEA	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH 1	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	DBH 2º
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	EUSKERA ETA LITERATURA A EREDUA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>			
<b>diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.</li> <li>- Zientzia-,Teknologia- eta osasun- kulturarako gaitasuna.</li> <li>- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.</li> <li>- Gaitasun digitala eta informazioaren trataerakoa.</li> <li>- Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.</li> <li>- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna</li> </ul>		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	JUAN CARLOS CRESPO LACA	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2019-20

**Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:**

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.
6. Ingurumenerako gaitasuna.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
1) Hizkuntzaren zenbait erabilera eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, zenbait motatako komunikazio egoerei aurre egiteko.	1) Hainbat euskarritan dauden ahozko testuak ulertzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informazio egokia hautatuz,

<p>2) Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean adieraztea eta elkarri eragitea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait komunikazio-premiari modu eraginkorrean erantzuteko.</p> <p>3) Hizkuntzak diren sistemari buruz modu autonomoan gogoeta egitea, eta testuak ulertzeko eta ekoizteko prozesuan testuinguruarekin, testuarekin, esaldiarekin eta hitzarekin lotutako hizkuntzaren erabilera arauak aplikatzea, hizkuntza modu txukun, koherente eta zuzenean erabiltzea eta transferentzia egokiak egitea helburu hartuta.</p> <p>4) Norberak hautatutako idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziazko gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko.</p>	<p>proposatutako helburuari begira.</p> <p>1.1 Aurrez landutako ahozko generoak identifikatu eta haien ezaugarriak ematen ditu.</p> <p>1.2 Ahozko testuen gaiari igartzen dio.</p> <p>1.3. Ideia nagusiak bereizten ditu.</p> <p>1.4 Modu aktiboan entzuten du.</p> <p>2) Hainbat euskarritan idatzitako testuak ulertzea eta interpretatzea, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, zentzu orokorraz ohartuz, testuko zatiak identifikatuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informazio egokia hautatuz, proposatutako helburuari begira.</p> <p>2.1 Idatzizko generoak identifikatu, eta haien ezaugarriak ematen ditu.</p> <p>2.2 Testuaren gai orokorrari igartzen dio.</p> <p>2.3 Testuaren zentzu orokorra laburtzen du.</p> <p>2.4 Ideia nagusiak identifikatzen ditu.</p> <p>3) Planifikatu ondoren, ahozko testu soilak sortzea, argiak eta egituratuak, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen eta instrukzio-testuak, jarduera akademikoari buruzkoak edo gai interesgarrii buruzkoak, ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen laguntzaz, hitzezko eta ez-hitzezko baliabideak egoki erabiliz.</p> <p>3.1 Modu logikoan antolatzen du informazioa, emandako jarraibideak aintzat hartuz.</p> <p>3.2 Ahozko testua egituratzen du, eskema egoki bati jarraituz.</p> <p>3.3 Ahozko testuak sortzen ditu, argi eta txukun, gidoi bati jarraituz.</p> <p>3.4 Ikus-entzunezko baliabideak eta IKTak erabiltzen ditu, lagunduta, ahozko lanak sortzeko.</p> <p>4) Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozko harremanetan, elkarlanerako jarrera positiboarekin.</p> <p>4.1 Taldeko elkarrizketetan parte hartzen du, ideiak, gertaerak, bizipenak eta sentimenduak adieraziz.</p> <p>4.2 Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.</p> <p>4.3 Modu espontaneoan parte hartu, eta ikuspuntu pertsonala ematen du.</p> <p>4.4 Inoren hizketaldiak errespetatzen ditu.</p> <p>4.5 Hizketako txanda errespetatu eta arau</p>
---	--

<p>5) Literatura-generoen eta literaturaren historiako etapa eta lan nagusien oinarrizko araei buruz ikasitakoak erabiltzea, denen artean literatura-testuak ondo ulertzeko, eta hori dela eta, literatura-ondarea esperientzia indibidual nahiz kolektiboa sinbolizatzeko eta norberaren kultura-identitatea eraikitzeke bidetzat hartzea.</p> <p>6) Oinarrizko ezaguera soziolinguistikoetan oinarrituta, gure errealitate elebiduna eta, oro har, eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutzea, interpretatzea eta balioestea, eta horretan, hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzearen aldeko jarrera linguistiko enpatiko eta asertiboak bultzatzea eta sustatzea.</p> <p>7) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) modu autonomo eta kritikoan erabiltzea, informazioa lortzeko, eta elkarrekin komunikatzeko eta kooperatzeko.</p> <p>8) Irakurmena hobetzea. Literaturako testu narratiboak, deskriptiboak, antzerkia, olerkia, zientifikoak, kazetaritzako generoak, edo beste motako testuak ulertzea. Irakurri ondoren</p>	<p>sozio komunikatiboak erabiltzen ditu.</p> <p>5) Planifikatu ondoren, idatzizko testuak sortzea, paperean nahiz digitalean, pertsona arteko harremanen, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat narrazio-, azalpen- eta instrukzio-testuak, kontuan hartuz komunikazio egoera, eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez.</p> <p>5.1 Iturri analogiko nahiz digitaletan informazioa bilatu eta hautatzen du, lagunduta.</p> <p>5.2 Testuaren edukia planifikatzen du, lagunduta eskemak, oharrak, kontzeptu-mapak eta abar erabiliz.</p> <p>5.3 Informazioa paragrafotan antolatzen du.</p> <p>5.4 Ikasturtean zehar landutako kohesio-elementu nagusiak erabiltzen ditu.</p> <p>5.5 Egoerarekin bat datorren erregistroa erabiltzen du.</p> <p>5.6 Arau gramatikalak eta tipografikoak errespetatzen ditu, bai eta arau ortografiko nagusiak ere.</p> <p>5.7 Teknika eta tresna digitalak erabiltzen ditu, lagunduta, idatzizko testuak sortu eta zabaltzeko.</p> <p>6) Sistema linguistikoaz eta haren erabilera-arauez gogoeta egitea, testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz, eta jakintza horiek erabiltzea, lagunduta, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testu eta berrikuspen hobeak egiteko.</p> <p>6.1 Oinarrizko egitura sintaktikoak ezagutzen ditu.</p> <p>6.2 Oinarrizko kategoria gramatikalak ezagutzen ditu.</p> <p>6.3 Hitzak eratzeko oinarrizko tresna batzuk ezagutzen ditu.</p> <p>6.4 Arau morfosintaktiko, ortografiko eta fonetiko nagusiak ezagutzen eta betetzen ditu bere lanetan.</p> <p>7) Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea eta erabiltzea hizkuntzari buruzko gogoeta egitean, testuak ulertu eta sortzeko.</p> <p>7.1 Ikasturtean zehar landutako oinarrizko terminologia ulertzen du, testuak ulertzeko eta sortzeko orduan emandako azalpenak eta argibideak jarraitzeko.</p> <p>8) Literaturako testu laburrak edo pasarteak ulertzea, ahozkoak nahiz idatzizkoak, denen artean</p>
--	---

<p>hausnartzea eta arrazoitzea zer esan nahi diguten, eta mamia ulertzea</p> <p><b>9) Kontsumitzeak duen garrantzia baloratzea, kontsumo modu desorekatuak eta kaltegarriak baztertuz eta elikagai freskoak eta osasungarriak hartuz.</b></p> <p><b>10) Ingurunean giza jarduerak duten eraginaz jabetzea, eta ingurugiroa defendatzen, zaintzen eta hobetzen laguntzea. Horretarako produktu birziklatuak, birziklagarriak, gertukoak eta ekologikoak gure eguneroko bizitzan kontutan izatea eta ikastetxean hondakinen kudeaketa egokia ematea.</b></p>	<p>irakurrita eta entzunda, literatura-ezaguerak erabiliz, eta testuari buruzko iritzia pertsonala ematea.</p> <p>8.1 Hainbat generotako literatura-testuak irakurri eta entzuten ditu.</p> <p>8.2 Literatura-generoa ezagutzen du.</p> <p>8.3 Testutik mezua ateratzea</p> <p>9) Gure ohiturak eta nortasuna gogoan izan behar ditugu eta euskal sukaldaritza bultzatu behar da plater batzuk eginez.</p> <p>9.1. Pintxo baten errezeta grabatuko dute bideo batean. Hemengo osagai naturalekin prestatu behar da.</p> <p>9.2. Errezetaren prozesua grabatuko dute mugikorrarekin eta Interneten eskegiko dute.</p> <p>10) Birziklatzeko ohitura garatzea, ingurugiroa zaintzeko eta hobetzeko.</p> <p>10.1 Hondakinen birziklapenez jabetzen da eta material ezberdinak ondo sailkatzen ditu ontzietan.</p> <p>11) Ahozko nahiz idatzizko literaturaren hainbat lagin ezagutzea, bai eta haien konbentzio bereziak ere, literatura-testuak hobeto ulertzeko eta norberaren kultura aberasteko.</p> <p>11.1 Literatura-kontakizunaren ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu.</p> <p>12) Literatura asmoko testuak sortzea, ahozkoak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, hainbat generotakoak, literatura-testu bat eredutzat hartu eta testuak parametro jakin batzuen arabera eraldatuz</p> <p>13) Hizkuntza-aniztasunaz ohartzea eta hori balioestea, hizkuntzak nahiz hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, eta oinarritzko ezaguera soziolinguistikoak erabiliz.</p> <p>13.1 Ikasgelako, ikastetxeko eta inguruko hizkuntzak identifikatzen ditu.</p> <p>13.2 Errespetua eta jarrera positiboa du EAEko eleaniztasunaren nahiz kultura aniztasunaren aurrean.</p> <p>14) Hizkuntza-ohitura nahiz -jokaera asertiboak eta enpatikoak izatea, bai eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa, kooperatiboa, bidezkoa eta</p>
--	---

	<p>arduratsua ere testuinguru eleaniztunetan.</p> <p>14.1 Euskararen erabilera lehenesten du denetariko komunikazio-esparruetan.</p> <p>15) Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, eskolako jardueretan informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko.</p> <p>15.1 Komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko tresnarik eta aplikaziorik ohikoenak erabiltzen ditu.</p> <p>16) Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, bere ikasteko gaitasunean konfiantzarekin, autorregulazioa sustatzeko</p> <p>17) Irakurtzeko ohitura garatzea, eta literatura gozamen-iturritzat hartzea, mundua ezagutzeko bidetzat.</p> <p>17.1 Gazte-literaturako obrak, bere gustu, zaletasun nahiz interesetatik hurbil daudenak irakurtzen ditu.</p>
--	---

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

\*\*\* Una unidad didáctica tendrá que desarrollar una situación problema. Indicar cuál es.

Horas	1ª evaluación	Horas	2ª evaluación	Horas	3ª evaluación
16	1-ZER MODUZ UDA? Aurreko edukien erreposoa Izan eta ukan aditzaren aspektuak Konparazioak:kalitatezkoak eta kantitatezkoak.	16	4-GERO ETA AZKARRAGO... Aditz trinkoa iraganean;Ekarri ,Eraman Perpau konpletiboak Deklinabideak:Zerez	16	7-EROSI ETA EROSI konparatzaileak:baino,bezai n,beste Nor –Nori-Nork orainaldian Erakusleak;nor,nork,norekin, nori,noren
14	2-ZAINDU NATURA! Aditz trinkoak orain eta lehenaldian(Joan,Egon,Etorri ,Ibili). Deklinabideak:Noraino,Noran tz	16	5-MUSIKA...ON! Perpau konparatiboak:baino...ago Nor . Nori orain eta lehenaldian Deklinabideak:erreposoa	16	Zenbat eta zenbatean galdetzaileak eta bere erantzunak. 8-BEHIN BATEAN Nor-Nori- Nork orain eta lehenaldian Aditz bereziak:behar,nahi Perpau denborazkoak:- enean,bitartean,ondoren aurretuik
14	3-KIROLARI BAI! Deklinabideak:Norekin ,Norena,Norentzat Aditz trinkoak lehenaldian(Jakin,Eduki) Adjetiboan maila superlatiboa. <b>Arazo egoeraren proiektua:Herri kirolak aurreratzea.</b>	16	6-ON EGIN! Perpau konparatiboak:baino.....gehi ago;gutxiago Zertara eta zertarako galderak Izenordain zehaztugabeak:zerbait,norb ait,inor,ezer Perpau konpletiboak egiteko t(z)eko.	16	9- WWW.KOMUNIKABIEAK@. COM Perpau kausalak;- lako,eta,bait Baldintza errealak Zehar galdera ikusi. 10-Erreposo orokorra.

**Arazo egoera:** Unitate didaktikoaren barruan “Herri kirolak aurreratzea “ lan egingo da.

Proiektu honek kalifikazioaren %20 balio izango da1.evaluaketan,zeren talde lan hau egitean idazmena landuko baitute eta adierazteko orduan mintzamina egingo baitute.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Ikasturtearen edukiak, bederatzi unitate didaktikoetan banatzea erabaki dugu, eta unitate didaktiko bakoitza ARAZO GALDERA batetik sortzen da, eta galdera hauek loturik daude gehienetan Ulermen liburuan datozen gaiekin. Gure ikastetxean DBH1en astean zehar, 3 saio ditugu.

Orokorrean irizpide hauek izango ditugu gogoan:

- Komunikazioari dagozkion bost hizkuntza trebetasunak garatzeko aukera emango da: entzun, hitz egin, elkarrizketan aritu, irakurri eta idatzi.
- Ikasleei, bakarkako jardueraz gain, binaka nahiz taldeka lan egiteko aukerak eskainiko zaizkie, komunikatzeko egoera antolatzeke ezinbestekoak baitira. Talde lanei arreta berezia eskainiko diegu.
- Ahal den guztietan, testu osoekin lan egingo da; hala ere, zenbait eduki lantzeko (aditza, deklinabidea, gramatika...) esaldi solteetara joko dugu, hizkuntzari buruz hausnarketa egin dezaten, eta pixkanaka, euskararen hizkuntza beregana dezaten.
- Komunikazio egoera errealak edo erreal izan daitezkeenetan oinarritutako jarduerak proposatuko ditugu.
- Hizkuntzak gizartean duen dimentsioaz jabetu daitezen bideak eskainiko dizkiegu.
- Ahozko hizkuntzari arreta eskainiko diogu.
- Literaturaren mundura hurbiltzeko aukera emango diegu.
- Lanak egiteko edo aurkezteko baliabide digital desberdinak erabili.

Hizkuntzaren esparru bakoitzean metodologia aproposak erabiliko ditugu:

- ✓ Idatziko ulermena (Irakurmena)
- ✓ Aurten bultzatuko dugu bereziki IRAKURMENA (COMPRENSION LECTORA). Horretarako testu mota desberdinak egingo ditugu "Ulermena" liburutik hartutakoak, beste batzuk beste iturrietatik (Habe irakurmenak, Ikasbil webetik...) Gainera saiatuko dugu liburuxka bat irjurtzea "Ipuin Beldurgarriak" Maupassantena.
- ✓ Idatziko adierazpena. Testu mota ezberdin idatziko dituzte: e mailak, ipuinak, albisteak, elkarrizketak, istorio laburrak, erreportajeak jabe daitezen testu bakoitzaren ezagugarriez. Prozesua hauze izango da: gidoia prestatu, informazioa lortu, ordena baten arabera zirriborroa idatzi, hizkera egokia eta zuzena erabili, zuzendu, idatzi
- ✓ Ahozko ulermena. Egoera errealeko askotariko entzungaiak (formalak, informalak, didaktikoak, irratikoak...) entzuteko aukera izango dituzte. Ikastetxetik kanpo egingo diren irteerak edo bisitak euskaraz izango dira.
- ✓ Ahozko adierazpena. Batzuetan irakasleak gai batzuk esango ditu eta haiek binaka edo binaka zirriborro bat prestatuko dute gaiari buruz besteen aurrean hitz egiteko. Beste batzuetan aurkezpen bat edo antzerki txiki bat prestatuko dute besteen aurrean egiteko.

Metodologia aktiboa eta parte hartzailea izango da., eta balore onak sustatuko dira. Ikasleen taldekatzea jardueren arabera izango da; binaka, bikoteka, talde txikian eta talde handian.

Euskarari erabilerari dagokionez euskaraz dakiten irakasleei euskaraz zuzendu beharko zaie bai gelan, bai beste lekuetan ere. Ikasleak horrela egiten badu errefortzu positiboak ematen ahaleginduko gara. Jarrera notaren barruan %5 izango da alderdi hau, ez dugu kalitatea neurtuko euskararekiko jarrera baizik. Ikasleei argi utzi behar zaie irakaslearen koadernoan puntu berde edo gorriak ipintzen ditugula euskaraz aritzeagatik.

## **ANIZTASUNAREN TRATAERA**

Aniztasunari erantzuteko, barnean sartzea izango da oinarritzko irizpidea; hau da, ikasle guztiak dira beharrezkoak, euren ezberdintasun eta ezaugarriekin, hori ere ikasketa-prozesuaren parte baita.

Behar bereziak dituzten ikasleei beharrezko moldaketak egingo zaizkie, euren prozesua arrakastaz buka dezaten.

Horrez gain, aniztasunaren barruan sartzen diren ikasleei ere arreta berezia emango zaie, modurik onenean lagundu ahal izateko.

### BALIABIDEAK

- Koadernoak
- Bakoitzaren ordenagailua.
- Irakurketa liburuak:
  - “Bihotz ausarta” Joanes Urkixo. Alfaguara.
  - “Dorretxe zaharreko misterioa”. Fernando Morillo. Ibaizabal
- “Garmendia eta zaldun beltza”. Kirmen Uribe. Elkar
- Testu liburuak. (digitalak)
  - Euskara eta Literatura DBH 1 Gramatika. Ibaizabal
  - Euskara eta Literatura DBH 1 Ulermena. Ibaizabal
- Arbela digitala
- CDak
- Interneteko web orriak
  - <http://www.aditzak.com>
  - <http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/home>
  - <http://www.eitb.tv/es/>, <http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokuteka>
  - <http://www.habe.euskadi.net/s23-ereduak/es>
  - <http://euskaljakintza.com/aditza/>
  - <http://euskaljakintza.com/ariketaguztiak/deklinabidea/>
  - <https://hiztegiak.elhuyar.eus/>

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>



<p><b>A. Gramatika:</b> Azterketa idatziak.</p> <p><b>B. Ahozko ulermena:</b> Entzungai frogak.  <b>Idatzizko ulermena:</b> Testu mota desberdinekin egindako irakurmen frogak. Irakurritako liburuxkaren froga.</p> <p><b>C. Idatzizko adierazpena:</b> Idazmen froga, egitura zehatz batekin (planifikazioa, idazlan bera eta kontrol zerrenda). Errubrikak.  <b>Ahozko adierazpena:</b> Mintzamen froga edo lan baten aurkezpena (banakakoa edo taldekoa). Errubrikak.</p> <p><b>D. Jarrera eta lana:</b> Parte hartzea, lana eta euskararekiko interesa.</p>	<p>- Ikasturtearen hasieran ikasleak ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak jakinarazten zaizkie, haiek kontuan izateko.</p> <p>- Gaiarekiko jarrera kontuan izango da.</p> <p>-Ikasmateriala zaintzea eta gainontzekoena errespetatzea.</p> <p>-Irakasle eta ikasleekiko errespetua eta duintasuna gordetzea.</p> <p>-Autonomiaz jardutea</p> <p>-Ikasgelan agindutako materiala eta gairako beharrezko koadernoak ekartzea, partaidetza, jakinmina, ikasmina eta aditasuna erakustea, bai taldeka, bai bakarka. Baita apunteak hartzea ere.</p> <p>-Komunikazioan lehen hitza euskaraz emateko prestutasuna izatea.</p> <p><b>OHIKO EBALUAZIOA</b></p> <p>- Ebaluaketan zehar zenbait froga egingo dute eta froga horien balioa honela banatuko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>A. GRAMATIKA % 40</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bi gramatika azterketa</li> <li>- Hiztegi proba</li> </ul> </li> <li>• <b>B. ULERMENA % 25</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Entzumena % 10</li> <li>- Irakurmena % 10</li> <li>- Irakurketa liburua % 5</li> </ul> </li> <li>• <b>C. ADIERAZPENA % 25</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Idazmena</li> <li>- Mintzamena (bakarka zein taldeka)</li> <li>- Proiektua(Antzerkia,aurkezpen bat...)</li> </ul> </li> <li>• <b>D. JARRERA % 10</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- lana eta interesa</li> <li>- Euskararekiko jarrera</li> </ul> </li> </ul> <p><b>EKAINEN OHIKO EBALUAZIOA</b></p> <p>- Ebaluazioa etengabea denez, behatuko da ebaluazio horretan emandako gaiekin lotuta zeuden ebaluazio-irizpideak gainditu dituzten ala ez adierazleen bidez. Behaketa honetan kontuan izango dira idatzizko zein ahozko probak, baita jarrera ere. Emaizta hauek guztiak, irakaslearen erregistro koadernoan jasota egongo dira.</p> <p>Ikasturteko helburuak bete dituzten ala ez behatuko da ebaluazio irizpideen bidez kontrolatuz eta hauei dagozkien adierazleak kalifikatuz.</p>
--	--

	<p>Gutxienezko irizpideak betetzen badira, emaitza <b>GAI</b> izango da, bete diren irizpideei dagokien zenbakizko nota emanez.</p> <p>Ebaluaketa berria gainditzean aurrekoa gaindituta egongo da.</p> <p>Gaitasunetan, lortutako maila nahikoa ez bada, emaitza <b>EZ GAI</b> izango da eta ikaslearen garapena aztertu eta gero, ikasleari komeni zaion berreskuratzeko sistema erabiliko da.</p> <p><b>AZKEN NOTA</b></p> <p>- Ebaluazio partzialak gainditzen dituenak kurtsoa gaindituko du. Azken nota hiru ebaluaketen batez bestea izango da.</p> <p><b>EKAINEN OHIZKO EBALUAZIOA</b></p> <p>- Ekaineko ohiko ebaluazioan EZ GAI emaitza eskuratu duenak ez-ohiko probara aurkeztu beharko da.</p> <p>Ez – ohizko proba honetan izandako emaitza baino ez da kontuan izango, azkeneko emaitza emateko.</p> <p><b>EZ – OHIZKO PROBAREN ATALAK</b></p> <p>-Idazlana % 15 -Irakurmena %15 -Gramatika %70</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN</b> [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	
<p><b>BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurreko ebaluazioan gaitasunak lortu ez badira, ebaluaketa berria gainditzean aurrekoa gaindituta egongo da.</li> <li>- Ikastaroaren bukaeran ohiko azterketa gainditu ez dutenei, oinarriko edukiei buruzko ez-ohizko azterketa egingo zaie.</li> <li>- Ikastaroa ez gaindituz gero, beharrezkoa izango da oportretan indartze lan bat egitea(kalifikazioaren % 30), eta gero urrian hasierako froga gainditzea/kalifikazioaren % 70)</li> <li>- Edukiak barneratzeko ikasle batek arazoak baditu hainbat indartze ariketak etxean egiteko emango dizkiogu hutsune eta gabezi horiek betetzeko</li> <li>- .Ikasle batek aurreko kurtso euskara ez gaindituta edukiz gero urtarrean gainditzeko aukera izango du minimoen azterketa baten bidez.</li> </ul>	

## II. ERANSKINA

### ARAZO EGOERA BATETIK ABIATUTA UNITATE DIDAKTIKO BAT PROGRAMATZEKO TXANTILIOIA

Arloa: EUASKARA ETA LITERATURA ( A EREDUA)

Gaia: 3. KIROLARI BAI...

Maila: DBH 1

Saioak: 4

#### **Proposamenaren justifikazioa:**

Herri kirolak Euskalherrian oso garrantzi handia dauka. Gaur egun gazteek ez dute ohiturarekin jarraitzen eta desagertu egingo da. Gainera turismoaren arloan oso posibilitate ona izan daiteke Euskalherria etortzeko, beraz autonomiaren ekonomia haunditu egingo da.

#### **Arazo-egoera:**

**A. Testuingurua:** Herri kirol guztiak gure arbasoen lanbideetatik datoz, harrobiak, etxerako lanak baratzean, animaliak... eta gaur egun oraindik existitzen dira gure gizartean.

**B. Arazoa:** Gazteak gaur egun ez dira herri kirolekin identifikatzen eta ez dute bat ere praktikatzen ezta ikusten ere. Horrela kirolak desagertzear daude.

**C. Helburua:** Gure ikasleak konturatu behar izango dira zein garrantzi handia duen gure herri kirolak, gure tradizioak, estilo eta identitatea mantentzeko. Horrez gain oso inportantea izango da gure herrientzat turismoaren haunditasuna.

**Eginkizuna:** Taldeka aukeratuko dute herri kirol mota bat eta grafikazko eta ahozko erakusketa bat egitea lagunen aurrean.

#### **Oinarrizko kompetentziak:**

**A. Zeharkakoak:** - Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- Izaten ikasteko kompetentzia.
- Ingurumenerako gaitasuna.

**B. Diziiplina-kompetentziak:** - Hizkuntza-komunikaziorako eta literaturarako gaitasuna.

- Zientzia-, Teknologia- eta osasun- kulturarako gaitasuna.

- Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna.
- Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.

**Helburu didaktikoak:**

- Zergaitik da inportantea gure herri kirolak mantendu egin behar dugula argitzea.
- **Kirolak egiterakoan hautapen naturalak eta egokiak egitea.**
- Elikadura ona duen garrantziak jabetzea.
- Hizkuntzarekin lotutako gizarte ohiturak eta kultura elementuak ezagutzea.
- **Lurrarekiko eta animalientzako errespetua sustatzea.**
- Ohiko kultura kirolaria baloratzea.
- Turismoaren garrantzia azaltzea

**Edukiak:** Herri kirol mota desberdinak eta gure arbasoen lanak erlazionatzea.

Azkolariak,harrijasotzaileak,estropadak,idi probak,barrenadoreak.

**Leku natural aproposak kirolak egiteko bilatzea.**

**Animalien babesa adieraztea.**

**Jardueren sekuentzia:****A. Hasierako fasea:**

- Arazo-egoera aurkeztu eta planteamendua zehaztu.
- Ikasleek veste herrialde batzuetako herri kirola ohituraei buruzko informazioa bilatuko dute konparatzeko.

**B. Garapenaren fasea:**

- Herri kirola bakoitzetik video bat ipini denon artean ikusteko.
- Datuak Bildu eta kirolaren aldeko eta kontrako argudioak garatu ohiturrekin jarraitzeko.

**C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea:**

- Agindu banatzeko lauko taldetan.
- Talde bakoitzak herri kirol mota bat aukeratu eta grabaketa bat egin bere ezaugarriak azaltzen eta erakusten.

**D. Orokortzea eta transferentzia:**

- Bideoen aurkespenak ikusiko ditugu klasean.
- Euskal egunean patioan herri kirol probak egingo ditugu klase guztien artean.
- Irabazleentzat sari batzuk banatuko ditugu.

## **Ebaluazioa**

### **A. Adierazleak:**

- Herri kirola duen garrantzia gure gizartean jabetzen da.
  - Turismoarentzat duen garrantzia jabetzen da.
  - Herri kirolak gure kulturaren adierazpen gisa baloratzen da
  - Talde lanean aritzen du modu kooperatiboa eta baliabide digitalak erabiliz.
- Arazo egoera:** Unitate didaktikoaren barruan "Herri kirolak aurreratzea" lan egingo da. Proiektu honek 1. Ebaluaketaren kalifikazioaren % 25 izango du, zeren talde lan hau egitean idazmena landuko dute eta adierazteko orduan mintzamina egingo dute

### **B. Tresnak:**

- Ikasleen bideoak eta grabaketak baloratzea.
- Taldeen jarrera eta lanaren eguneko behaketa.
- Ikastetxeko egindako probak jabetzea.

